

2025-2026 IKASTURTEKO OHIKO EPETIK KANPOKO ESKABIDEAK

PLAZA HUTSAK IRUÑEKO ETA EGUNSENTIKO (BURLATA) HAUR-ESKOLETAN

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eta Iruñeko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren arteko hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera, 2025eko abuztuaren 18tik 2026ko otsailaren 13ra bitartean onarpen-eskaera berriak aurkeztu ahal izango dira, baldin eta haurrak 16 aste beteta baditu. Hitzarmenaren xedea da funts publikoekin sostengatutako Iruñeko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan eta Burlatako "Egunsenti" haur-eskolan onarpen-prozesua eskaintzea eta elkarrekin kudeatzea 25-26 ikasturterako.

Eskabide horiek kontuan hartuko dira, **ohiko onarpen-prozesuan sortutako itxarote-zerrenda agortu ondoren, baldin eta plaza hutsak badaude.**

Eskabideei sarrera-hurrenkera zorrotzaren arabera erantzungo zaie. Eskabideak aurkezteko epea **2025eko abuztuaren 18ko 8:30ean** hasiko da.

Egun eta ordu horren aurretik aurkeztutako eskaerei **ez zaie erantzungo.**

Oro har, ez zaie hutsik dagoen plazarik eskainiko dagoeneko haurrak matrikulatzeko eskabidea aurkeztu dutenei, 2025-2026 ikasturterako, Nafarroako Foru Komunitateko titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeren batean.

Aurkezteko era:

- Iruñeko Udalaren erregistro elektronikoaren bidez: [Herritarren Karpeta - Iruñeko Udala](#), edo Hezkuntza Departamentuko Haur Eskolen Zerbitzuari zuzendutako [eskabide ofizialaren](#) bidez.
EZ AURKEZTU ESKABIDE BIKOIZTURIK. Onarpen-eskaera bateratua da, eta Iruñeko Udaleko eta Hezkuntza Departamentuko eskolak sar daitezke.
- Aurrez aurreko laguntza, **2025eko abuztuaren 18tik aurrera, 8:30ean**, Iruñeko Udal Haur Eskolen bulegoetan (Descalzos kalea 72). Telefonoa: 948 420 098. **Ordutegia: 08:30etik 14:30era.**

Sartzeko eskabideak eredu ofizialaren arabera izango dira ([Iruñeko Udalaren haur-eskolen webgunean](#) eta [Hezkuntza Departamentuaren webgunean dago eskuragarri](#)), eta bi gurasoen nahitaezko agiri hauekin batera aurkeztu beharko dira (guraso bakarreko familia direla egiaztatzen dutenentzat edo zaintza eta jagoletza eskusiboa duten gurasoen kasuan izan ezik):

-Eskabidea beteta eta sinatuta.

-NANaren fotokopia.

-Familia-liburuaren edo jaiotza-ziurtagiriaren fotokopia.

2025eko urriaren 1etik aurrera, eskatutako ikastetxearen erakunde titularrari soilik aurkeztuko zaizkio eskabideak (Iruñeko udal haur-eskolen kasuan Descalzos kaleko 72. zenbakian, eta Hezkuntza Departamentuko haur-eskolen kasuan, Hezkuntza Departamentuko Haur Eskolen Zerbitzuari zuzendutako [eskabide ofizialaren](#) bidez), eta eskaera-inprimakia beteta eta nahitaezko dokumentazioa erantsi beharko zaizkio.

LASTER ARGITARATUKO DA PLAZA HUTSAK DITUZTEN IKASTETXEEN ZERRENDA